

# Taiwan: boto independentistak gora egin du hauteskundeetan

Gobernuko KMTk oposizioarekin pakturen bat egin beharko du


Taiwan-en atzo egin ziren lehendabiziko hauteskunde demokratikoetan, boto independentistaren igoera nabarmena eta Gobernuan dagoen KMT edo Kuomintang alderdiaren garaipen erraza izan ziren gertakaririk nabarmenenak. Alderdi Demokrata Progresistak independentziaren aldeko jarrera hartuz, duela bi urteko emaitzekin konparatuta behera egin badu ere, inkestek ematen zioten % 15 baino boto gehiago lortu ditu.

TAIPEI

Izan ere, duela bi urteko hauteskunde partzialetan botoen % 35 eskuratu zuen, baina orduan ez zuen independentziaren aldeko jarrerarik agertu oraingoan egin duen bezala. Jakitera emandako lehendabiziko emaitzen arabera, hiru milioi boto zenbatur ondoren, Alderdi Demokratikoa Progresistak botoen % 24 eskuratu du.

MKT alderdi gobernatzaileak, berriz, duela bi urte baino boto gehiago eskuratu du, % 70 hain zuzen. Gobernatzen segitzeko inolako arazorik izango ez badu ere, alderdi honen zituen asmoak baino boto gutxiago eskuratu ditu. Izan ere, bere helburua % 75 eskuratzeko zen, Konstituzio taiwandarra berritzeko orduan oposizioarekin pakturik egin behar ez izateko. Beste bi alderdi txikiagoek eskuratu dute Legebiltzarreko beste aulkiak.

**DEMOKRAZIA GARATU NAHIAN** Atzoko hauteskundeak 1947ko azaroan ezarritako Le-



BENAT AZURMENDI

gebiltzarreko azken 469 diputatu «jubilazioaren» ondoren egin dira. Txinan sortutako Legebiltzar hau izan da orain arte Taiwan ordezkatzeko erakunde legitimo bakarra.

Legebiltzar berriak, Taiwaneko politika demokratizatzeko araudiak aztertuko ditu. Besteak beste, errepublikako lehendakaria herriak hautatuko duen edo independentzia erreferendumaren bidez aldarrikatu beharko den aztertuko du. Gaur egun Legebiltzarra du errepublikako lehendakaria hautatzeko boterea.

Hauteskunde hauek izan dira KMT alderdi nazionalistari legitimitatea eman dioten lehendabizikoak. Taiwanen 1949an ezarri zen Gobernuan, Chiang Kai Shek-en nazionalistak komunisten aurka galdu zutenean. Esku gogorreko urteetako erregimenaren ondoren, Gobernuak lege martziala altxatu zuen 1987an. Giro politiko berriak baimendu zuen 1989an hauteskunde partzialak egitea, eta alderdi desberdinek parte hartzea, alderdi bakarreko sistema-ekin amaituz.

Independentziaren aldeko jarre-

✓ Hauteskunde hauek irteerako Legebiltzar berriak, Taiwaneko politika demokratizatzeko araudiak aztertuko ditu.

rak, Alderdi Demokrata Progresistak hartu duena, duela urte gutxi gartzelako bidea hartzea suposatzen zuen. Baina Chiang Ching Kuo lehendakaria hil ostean, Taiwaneko 'perestroikak' ideologia desberdinak sartzeko aukera eman zuen. KMT alderdiak Txina osoa ordezkatzen duelako ideia ez du baztertu, nahiz eta ia inork ez dion jaramonik egiten. Alderdi Demokrata Progresistak berriz, Txinarekin harreman guztiak hautsi eta irlak bere bidea hartzea proposatzen du, kontinentetik at bere identitate propioarekin.



Chiang Ching Kuoren alargunak ere bere botoa eman zuen atzo.



## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Unibertsitatearen Erreformatzeko Legean eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritako arauetara eraberritzearen ondoren Eranskinean aipatzen diren Irakasle Lagunen plazak hornitzeko merezimendu-lehiaketa publikorako deialdia egiten du, dagozkien jakintz arloen beraien gaien irakaskuntza eta, horrela behar izanez gero, ikerkuntza eginkizunak betetzeko.

Lehiaketak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 115. artikuluan ezarritako Kontratazio-Batzordeek epaituko dituzte.

Kontratazio-klausulak, Unibertsitatearen Gobernu-Batzarreak 1987eko uztailaren 14eko ekitaldian onaturikoak dira. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, dagokien eskaria bidaliko diote Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektore Jaunari, behar bezala betetako instantzia-curriculumaren bidez. Curriculumean aipaturiko merezimenduak dokumentalki frogatu beharko dira dagokien fotokopiarekin.

Instantzia-curriculumaren ereduak Eranskinean azaltzen diren ikastegien Idazkaritzetan emango dira, eta parte hartuko dueneko plaza bakoitzeko instantzia eta dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Instantziak aurkezteko epea aurtengo abenduaren 30eko 13:00 orduetan amaitzen da eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa, Bizkaia, edo Campusetako Errektorordetzatan: Gipuzkoako Campuseko Errektorordetza: Urbieta k/, 30 - Donostia eta Arabako Campuseko Errektorordetza: Manuel Iradier k/, 6 - Gasteiz.

Lehiaketa hauen erabakiak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lehiaketa-Ataleko, Campusetako Errektorordetzatiko eta dagozkien ikastegietako iragarki-tauletan argitaratuko dira.

Deialdi honi buruzko azalpenetarako, jo Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehiaketa-Atalera, Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

Leioan, 1991eko abenduaren 22an. Errektorea, Juan José Goiriena de Gandarias y de Gandarias.

### IRAKASLE LAGUNEN KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

#### Bizkaiko Campusa

Enpresa-Ikasketen U.E. - Bilbo

Orden Zkia.: 81. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Enpresa-Gestio eta Berrikuntzaren Ebaluazioa Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbidea (Sarrera). Arduraldia: Astean 4 lau ordu.

Meatz Ingeniaritza Teknikorako U.E. - Barakaldo

Orden Zkia.: 82. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingenieritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatz Prozepekzioa eta Ikerkuntza. Eginbeharreko iharduerak Geologia, Petrografia eta Mineral-Haztegiak, Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 83. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingenieritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatz Prozepekzioa eta Ikerkuntza. Eginbeharreko iharduerak Geologia, Petrografia eta Mineral-Haztegiak, Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 84. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingenieritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatzaren Eksploatazioa. Eginbeharreko iharduerak Lehergaiak. Arduraldia: Astean 3 ordu.

Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatea - Bilbo

Orden Zkia.: 85. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Pribatua. Jakintz Arloa: Merkatal Zuzenbidea. Eginbeharreko iharduerak Merkatal Zuzenbidea. Arduraldia: Astean 6 ordu.

#### Gipuzkoako Campusa

Zuzenbide-Fakultatea - Donostia

Orden Zkia.: 86. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Zibila. Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbide Zibila. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 87. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Zibila. Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbide Zibila. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Informatika-Fakultatea - Donostia

Orden Zkia.: 88. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Eginbeharreko iharduerak Konputagailuen Arkitektura 1. Arduraldia: Astean 4 ordu

Orden Zkia.: 89. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Jakintz Arloa: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Eginbeharreko iharduerak Konputagailuen Arkitektura 1. Arduraldia: Astean 4 ordu.

Orden Zkia.: 90. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala Jakintz Arloa: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala. Eginbeharreko iharduerak Zenbakizko Analisia eta Ikerkuntza Operatiboa. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 91. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala. Jakintz Arloa: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala. Eginbeharreko iharduerak Zenbakizko Analisia eta Ikerkuntza Operatiboa. Arduraldia: Astean 6 ordu

Orden Zkia.: 92. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Lengoia eta Sistema Informatikoak. Jakintz Arloa: Lengoia eta Sistema Informatikoak. Eginbeharreko iharduerak Programaketaren Metodologia. 1. Arduraldia: Astean 6 ordu

Medikuntza eta Odontologi Fakultatea. I.I.G. - Donostia

Orden Zkia.: 93. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Medikuntza. Jakintz Arloa: Medikuntza. Eginbeharreko iharduerak Dermatologia. Arduraldia: Astean 6 ordu.


## Cuomo demokrata ez da EEBBetako Lehendakartzarako aurkeztuko

NEW YORK

Mario Cuomo, New Yorkeko gobernadorea ez da Estatu Batuetako Lehendakartzarako hauteskundeetan hautagai gisa aurkeztuko. Cuomok herenegun gauean aukera hori baztertu zuen hilabetean erabaki horren zain eduki ondoren EEBBetako herritarrak.

New Yorkeko gobernadore izaten segituko duela adierazi zuen Cuomok, eta ez dela aurkeztuko datorren urteko hauteskundeetara. Klase politiko iparramerikarra zain zegoen New Yorkeko gobernadoreak zer erabakiko zuen, denek jotzen bait zuten George Bush lehendakariaren etsaierik gogorrena modura.

Alderdi Demokrata iparramerikarrak errepublikarren aurka lehiazteko hautagairik egokiena galdu du, dagoeneko egungo lehendakari iparramerikarren arrakasta izatera lortu bait zuen Cuomok eta Bushena, berriz, beherantz zihuan EEBBetako



Mario Cuomo.

krisi ekonomikoak eraginda.

Cuomok emandako prentsaurrekoan adierazi zuen ez zela datorren urteko Lehendakaritza hauteskundeetara aurkeztuko, New York estatuko aurrekontuen zailtasunak direla eta ez zuela New Hampshireko primarioetarako kanpainan buru belarri sartzerik izango.